

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

NAVARIDASKO UDALA

Bake epaile titularren eta ordezkoren lanpostuak betetzeko deialdia

Bat etorri Botere Judizialaren Lege Organikoak 101. artikuluan eta hurrengoetan eta ekainaren 7ko 3/1995 Arautegiak, bake epaileenak, 5. artikuluan xedatutakoarekin, hogeita hamar egun naturaleko epea ezarri da, iragarki hau ALHAOn argitaratu osteko egunetik aurrera, interresdunek eskaera aurkez dezaten udaletxeko idazkaritza nagusian, bake epaile titularren eta ordezkoren lanpostuak betetzeko Navaridasko bake epaitegian, lau urterako.

Hautagaiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte, BJLOren arabera:

- Adinez nagusia izatea.
- Espainiako naziotasuna izatea.
- BJLOren 303. artikuluan, 389. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako ezgaitasun edo bateraezintasunen bat ez izatea.

Eskabidearekin batera honako hauek aurkeztu behar dira: NANaren fotokopia eta zigor aurrekaririk ezaren ziurtagiria.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hau.

Navaridas, 2019ko abuztuaren 1a

Alkatea

MIGUEL ÁNGEL FERNÁNDEZ GONZÁLEZ